

Iñaki Ugarteburu zenaren omenez (1954-2009)

Xabier Alberdi Larizgoitia

*Gizaki batzuk behin borrokatzen dira eta onak dira;
beste batzuk urte batean, eta hobeak dira;
badira urte askotan borrokatzen direnak, eta oso onak dira;
baina bizitza guztian borrokan dihardutenak, horiexek dira ezinbestekoak.*

B. Brecht

2009ko martxoaren 20an, orain dela ia zortzi hilabete joan zen gure artetik Iñaki Ugarteburu Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia saileko irakaslea, gure lankide eta adiskide maitagarri eta maitatua.

Iñaki Ugarteburu asko nabarmendu zen gure artean euskararen zabalkundean eta euskarari buruzko ikerlanetan; bereziki, unibertsitatearen eta medikuntzaren esparruetan. Lan ikaragarria egin zuen bere bizitza akademikoan. Eta guztiz eredugarria izan zen gizartearekin, euskararekin eta unibertsitatearekin hartutako konpromisoa.

Ia zortzi hilabete dira Iñaki joan zitzaigula, eta orain nahikotxo baretu da gure samina; orain nahikotxo baretu da Iñakiren heriotzaren berri jakitean sentitu genuen tristura. Iñakiren lankide eta adiskide gisa, behartuta sentitzen nintzen haren omenezko ekitaldian parte hartzera, eta, beraz, gustura beteko dut neure egitekoa: gaurko ekitaldian Iñakiren ibilbide akademikoaren berri ematea.

Bergaran jaio zen Iñaki, 1954an, eta, urteen poderioz eta ekinaren ekinez, kultura zabalaren eta prestakuntza ez nolanhikoaren jabe izatera iritsi zen. Medikuntza-lizentziatura lortu zuen UPV/EHUn, 1978an; eta mediku-lanean jardun zuen Osakidetzan, 1978tik 1980ra bitartean. Urte batzuk geroago, 1987an, Euskal Filologiako lizentziatura eskuratu zuen unibertsitate berean. Urte luzeetan, gainera, 1981etik 1992ra bitartean, Deustuko Unibertsitatean jardun zuen lanean, euskara eta beste gai batzuk irakasten.

1992an, Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Filologia sailean hasi zen irakaslanean; hain zuzen, fakultate honetan (Medikuntza eta Odontologia Fakultatean). Eta, harrezkero, era batera edo bestera, UPV/EHUri lotuta egon zen beti Iñakiren ibilbide akademiko-profesionala: buru-belarri jardun zuen UPV/EHUrentzat irakasle-, ikertzaile- eta kudeatzaile-lanetan.

UPV/EHUko Euskara Institutuaren sorreran parte hartu zuen, eta 2003tik 2005era bitartean arduraldi osoz jardun zuen Euskara Institutuan eta Euskara Zerbitzuan, euskararen normalizazioari loturiko zereginetan: unibertsitateko testuak zuzentzen eta argitaratzen, irakasleentzako hobekuntza-ikastaroak antolatzen eta ematen, terminologia-jardunaldiak antolatzen...

Bere bizitzako azken urteetan (2005etik 2009ra), UPV/EHUko Euskara Zerbitzuko lana utzi eta Euskal Filologia sailera itzuli zen: irakasten eta ikertzen aritu zen Medikuntza eta Odontologia Fakultatean —fakultate honetan—, non beti izan baita irakasle guztiz estimatua eta maitatua.

Iñaki Ugarteburu zenaren omenez (1954-2009)

Xabier Alberdi Larizgoitia

Espezialitate-hizkerak, eta, zehatzago, osasunaren arloko euskararen normalizazioa zituen Iñaki Ugarteburuk aztergai bere irakaslan eta ikerlanetan. Hona hemen haren gogoko aztergai eta azterlan batzuk: medikuntzako euskara teknikoak, erizaintzako hiztegia, hizkuntza-aukerak eta hizkuntzaren erregistroak, hizkera teknikoaren didaktika, akronimoen lexikalizazioa, osasunaren arloko testuak, espezialitateko terminoen itzulpena, testu teknikoaren irakurgarritasuna, maileguen egokitzapen grafikoa, espezialitateko euskal lexikografia, Panacea aldizkariko ekarpenak (“Implantar e implante”, “Traducción especializada”, “Ortrografía y traducción”, “Préstamos léxicos y adecuación gráfica”...).

Euskarazko terminologiari dagokionez, ideia hau agertzen da maiz Iñakiren azterlanetan: tradizioko ondare lexikoaren eta mailegu-bidearen artean halako oreka bat bilatu beharra, erregistroa eta espezializazio-maila kontuan hartuz.

Gogoz eta jakitez parte hartu zuen erakunde eta foro askotan. Osasungoa Euskalduntzeko Elkartearekin lan egin zuen, esaterako, osasunaren arloko jardunaldi, biltzar eta argitalpenak aurrera ateratzeko. Askotariko aldizkari eta agerkarrietan ere partu hartu zuen (ASJU, Berba, Senez, Euskaltzaindiaren biltzarrak, Panacea...). Eta, gainera, iritzi-artikuluak eta zabalkunde-lana egitera ere ausartu zen bestelako foro batzuetan (euskarazko prentsa, *Administrazio Euskaraz*, *Erabili.com*...).

Iñaki Ugartebururen itzala eta eragina, esparru askotara zabaldu dira; baina, nire ustetan, euskararen arloan UPV/EHUn utzi duen aztarnak luzaroan iraungo du. Bereziki euskararen normalizazioaren alde —testu espezializatuak zuzentzen eta argitaratzen— egindako lan eskerga nabarmendu nahi nuke, eta, batez ere, haren irakaslan eredugarria, Medikuntza Fakultateko jardueratik harantzago doana: ikaragarri estimatzen genuen Iñaki UPV/EHUko irakasle euskaldun guztiok; izan ere, arreta eta maitasun handiz jardun izan zuen beti euskarazko hobekuntza-ikastaroetan.

Ikuspuntu akademiko batetik, balio profesional handiko pertsona zen Iñaki. Izan ere, askotariko soslai eta jakiteak biltzen ziren harengan: medikua, filologoa, espezialitateko itzultzailea, literatura-sortzaile eta itzultzailea. Maisua izatera heldu zen Euskal Herriko mediku gazteen belaunaldi askorentzat, eta, beharbada, maisu izate horrek erakarri nau gehien Iñakirengandik: 2009ko urtarrilaren 12an, Gurutzetako ospitalean ebakuntzaren zain zegoela, bere gaixotasunaren larritasunaren jakitun, ikasleen lanak zuzentzen eta kalifikazioak jartzen ziharduen; halakoxea zen gure Iñaki. Jakin-min intelektual ikaragarria zuen, kultura eta jakintza ez nolanhikoak, komunikatzeko gaitasun eta argitasun harrigarriak, eta, batez ere, apaltasun handia eta umore fina (umore fin horren erakusgarri bikaina da “De cómo tomé la decisión de utilizar el diccionario” kontakizuna (*Panacea*, Vol. 2, nº 4, 2001).

Irakasle bikaina izan zen Iñaki, irakasle maitatua eta bere lanera osoki emana, baina, haren heriotzaren ostean, niri batez ere pertsona moduan gertatzen zait eredugarri eta maitagarri: guztiz gizon eskuzabala zen, jende hurkoari guztiz emana eta beti edonori laguntzeko prest zegoena. Harentzat, pertsonak zuten lehentasuna, beste interes guztien gainetik: hain zuzen ere, “ezetz” esaten ez jakitea zen Iñakiren akats bakantetako bat, eta, nire iritzi, akats horren ondorioz —hau da, jendeari bere burua ematearen ondorioz—

Iñaki Ugarteburu zenaren omenez (1954-2009)

Xabier Alberdi Larizgoitia

ez zuen lortu ibilbide akademikoan, bestela ere bere ahalmen eta gaitasunen arabera erraz lor zezakeen maila.

UPV/EHUko lagun asko eta asko gaude zorretan Iñaki zenarekin. Asko gara Iñakiren heriotzagatik sufritu dugunak¹: Euskal Filologia saileko lankideak, Euskara Errektoreordetzakoak, Euskara Zerbitzukoak, Medikuntza eta Odontologia Fakultatekoak, Euskara Institutukoak; eta, zer esanik ez, Iñakiren eskoletatik igaro diren mediku euskaldunen belaunaldi guztiak.

Une eta esperientzia gogoangarri asko bizi izan ditut Iñakirekin, eta, orain, Iñakik alde egin eta gero, sentimendu kontrajarriak ditut barruan: Iñaki gogora ekartzean, batetik, hutsune eta min handia sentitzen dut oraindik ere; bestetik, esker ona eta poza ere sentitzen dut, ikaragarritzko zorte ona izan baita niretzat Iñakiren bidelaguna izatea. Baina, sentimendu eta gauza guztien gaitetik, Iñakiren bizitzatik atera behar dugun itxaropen-mezua azpimarratu nahi nuke: Iñaki Ugarteburu bezalako pertsona eskuzabalak behar ditu gure gizarteak; guztiz emankorrak dira halako pertsonen lana eta bizitza. Izan ere, Brecht-ek zioenez, halako pertsonak dira “ezinbestekoak”. Gure artetik joan da Iñaki, baina beti biziko da gure oroimenean eta gure bihotzean.

Leioan, 2009ko azaroaren 17an

Xabier Alberdi Larizgoitia

IÑAKI UGARTEBURUREN BIBLIOGRAFIA HAUTATUA²:

Ugarteburu, I.: “Medikuntzako euskara ereduak I, II”, *Berba 21* (UZEI), Donostia: 1996, 1997.

Ugarteburu, I.: “Akronimoen lexikalizazioa: *HIE*Setik *hiesera*”, *Nazioarteko Terminologia Biltzarra*, UZEI, IVAP, Donostia, 1997, 365-385.

Ugarteburu, I.: “La traducción de términos de especialidad” in *Proceedings 1st International Conference on Specialized Translation*, Barcelona: Universidad Pompeu Fabrá, 2002, 110-113.

Ugarteburu, I.: “Medikuntza eta euskara gaurkotzeko lanak” in *Administrazioa Euskaraz*, 37, 2002. Ikus

<http://www.ivap.euskadi.net/t59aWar/revistaJSP/t59aVerEjemplar.do?R01HNoPort al=true&t59aTipoEjemplar=R&t59aNumEjemplar=37> (11-09-2009).

Ugarteburu, I.: “Lexicografía especializada en lengua vasca” in *Aproximaciones al lenguaje de la ciencia*, Instituto de la Lengua castellano y leonés, 2003, 465-497.

Ugarteburu, I.: “Hizkuntza zerbitzuak unibertsitatean”, *BAT Soziolinguistika Aldizkaria*, 2004.

Ugarteburu, I.: “EHUko zuzenketak: mailak eta motak”, *Senez*, 27 (2004), in <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/20041031/zuzenehu> (11-09-2009).

¹ Euskara Institutuaren webgunean ikus daitezke Iñaki Ugartebururen agur-ekitaldian (Getxo, 2009-03-03) irakurritako testuak eta bideoak: <http://ehu.es/ehg/ugarteburu>

² Iñaki Ugarteburuk bere irakaslanerako sortutako web-orrietan ikus daitezke haren azterlan eta artikuluetako batzuk: <http://www.ehu.es/euskalosasuna/artikuluak.htm>. Espero dut web-orri hori ez galtzea, UPV/EHUko webgunearen birmoldaketaren ondorioz.

Iñaki Ugarteburu zenaren omenez (1954-2009)

Xabier Alberdi Larizgoitia

Ugarteburu, I.: “Euskara teknikoaren didaktika”, in *Nerekin yaio nun. Txillardegiri omenaldia* (Iker 17), Euskaltzaindia, 2005, 431-456.

Ugarteburu, I.: “Osasun arloko testuak eta lexikoa XXI. mendeari begira”, in *Euskaltzaindia: Euskal Gramatika eta Literaturari buruzko Jardunaldiak XXI. mendearen atarian (I-II) IKER 19*, 2008, 235-254. Véase <http://www.euskaltzaindia.net/dok/ikerbilduma/70480.pdf> (11-09-2009).

Panacea aldizkariko artikulak:

Ugarteburu, I.: “Implantar e implante”, *Panacea*, Vol. 1, nº 1, 2000. Ikus http://www.tremedica.org/panacea/IndiceGeneral/n1_Implante.pdf (11-09-2009).

Ugarteburu, I.: “Traducción especializada”, *Panacea*, Vol. 1, nº 1, 2000. Ikus http://www.tremedica.org/panacea/IndiceGeneral/n1_TradEspecializada.pdf (11-09-2009).

Ugarteburu, I.: “Ortografía y traducción”, *Panacea*, Vol. 1, nº 2, 2000. Ikus http://www.tremedica.org/panacea/IndiceGeneral/n2_OrtografiaUgarteburu.pdf (11-09-2009)

Ugarteburu, I.: “Préstamos léxicos y adecuación gráfica”, *Panacea*, Vol. 2, nº 3, 2001. Ikus http://www.tremedica.org/panacea/IndiceGeneral/n3_Ugarteburu.pdf (11-09-2009)

Ugarteburu, I.: “De cómo tomé la decisión de utilizar el diccionario”, *Panacea*, Vol. 2, nº 4, 2001. Ikus http://www.tremedica.org/panacea/IndiceGeneral/n4_UtilizarDiccionario.pdf (11-09-2009)

Ugarteburu, I.: “Mi diario”, *Panacea*, Vol. 3, nº 9-10, 2002. Ikus http://www.tremedica.org/panacea/IndiceGeneral/Pana9_lapiz_ugarteburu.pdf (11-09-2009)

Ugarteburu, I.: “Google Glossary Search”, *Panacea*, Vol. 3, nº 9-10, 2002. Ikus http://www.tremedica.org/panacea/IndiceGeneral/Pana9_entremes_googleglossary.pdf (11-09-2009).

Alberdi, X.; Ugarteburu, I.: *Euskaltzaindiaren araugintza berria: ikastaroa*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 1999.

Alberdi, X.; Ugarteburu, I. (argit.): *Espezialitate-hizkerak eta terminologia*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2003.

Igerabide, J.K.; Ugarteburu, I. (argit.): *Erizaintzako hiztegia*, Euskal Herriko Unibertsitatea, 2006.

Navarro, F.; Ugarteburu, I.: “Biological English (I, II, II) ¿Cómo lo digo en español? Eta euskaraz?” in Colegio Oficial de Biólogos de Euskadi: *Biogaia* 2002, 2003, 2004, 2005. Ikus <http://www.ehu.es/euskalosasuna/irakurgaiak/biogaia.pdf> (11-09-2009).

Salaburu, P.; Ugarteburu, I. (argit.): *Espezialitate-hizkerak eta terminologia III*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2008. Ikus http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_jardunaldiak2008/eu_jar2008/hasiera.html

Sarasola, I.; Salaburu, P.; Landa, J. ; Ugarteburu, I: *Lexikoa atzo eta gaur (LAG)*, 2008, <http://www.ehu.es/lag/>

Sarasola, I.; Salaburu, P.; Landa, J. ; Ugarteburu, I: *Hiztegi Batua euskal prosan (HBEP)*, 2008, <http://www.ehu.es/ehg/>

Iñaki Ugarteburu zenaren omenez (1954-2009)
Xabier Alberdi Larizgoitia

Ugarteburu, I.; Salaburu, P. (argit.): *Espezialitate-hizkerak eta terminologia II*, Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 2005. (Ikus http://www.ei.ehu.es/p289-content/eu/contenidos/informacion/euskara_inst_jardunaldiak2005/eu_jard2005/jardunaldiak_2005.html)